

Baso ilunaren istorioa

Gaur egun Iratiko Oihana deitzen diogunak garai batean Baso Iluna zuen izena. Inguruko herritarrek egunero zeharkatzen zuten oihana alde batetik bestera, merkatuetara joateko, beste herrietako jendearekin egoteko, bazen oihanera egur bila joaten zenik ere; batez ere, neguan izaten zuen lana Olentzerok, baina hori beste istorio bat da. Baso Ilunean zehar pago zaharrak ikusten ziren eta txorien kantuak entzuten ziren. Bertan espirituak bizi zirela kontatzen zuten herriko zaharrek, lotan igarotzen zuten euren biziaren zatirik handiena, baina tarteka esnatu egiten zirela esaten zen. Batez ere, haserrealdiak ez eragitea eta espirituak umore txarrean ez esnatzea zen zaindu behar genuen gauzetako bat, basoko harmonia mantentzea baitzen garrantzitsuena.

Nik orain ez dut oroitzen zenbat urte nituen, baina esango nuke 8 bat nituela, artean haurra bainintzen espirituak nonbait haserre bizian esnatu zirenean. Hain zuzen ere, abenduko gau batean hasi zen dena. Familia bat bere zakurra eta guzti basoan barneratu zen artaldeari bazka emateko. Ez zen inor itzuli, ez zakurrik, ez ardirik, ezta familiako kide bat ere. Tristuraz hartu zuten herrikoek familiari jazotakoa, baina haien esperoan itxarotea erabaki zuten. Hurrengo egunetan, herriko mutiko bat jolastera abiatu, eta itzultzeko ordua iritsi zenean arrastorik ere ez.

Herriko buruzagiak Euskaldunen Biltzarra deitzea erabaki zuen. Horretarako, uso mezulariak bidali zituen basotik igaro beharrik ez zuten inguruko herrietara, gurera etortzeko eskatuz. Euskaldunen Biltzarrean herriko zaharrek, gizon eta emakume gazte eta indartsuek, eta buruzagiek parte hartzen zuten, eta salbuespen egoeretan baino ez ziren deitzen. Gurean beharbada ehun urte ziren ez zela Euskaldunen Biltzarrik deitzen. Biltzarrean erabaki zuten denen artean basoan sartu beharra zutela zer gertatzen ari zen jakiteko. Ordea, herriko gazte batek iradokita, beharbada espirtu gaiztoen bat haserre iratzarri eta jendea bahitzen ariko zen, hoberena pagoak banan-banan moztea izango zen.

Erabakia luze hausnartu ostean, gaztearen ideari heltzea erabaki zuten, inor ez baitzen bueltatu berriz etxera behin basoan sartu ondoren, eta beste lagun talde bat bidalita ere, berriz ez bueltatzea gerta zitekeen; arrisku horren aurrean basoa moztea erabaki zuten. Iratiko Oihanean, ikusten duzuen bezala, oraindik ere pago eta haritz zaharrek zutik jarraitzen dute, baina Euskaldunen Biltzarrik nik ez dut berriz deitzen entzun. Espiritu hura lasaiago bizi dela dirudi, berriz ere loak hartuko zuela pentsatzen hasi ginen, baina bertara aizkorak zorrotzuta joan zirenetatik inor ez dugu inoiz ikusi berriz etxean.

Txantxangorriaren bidaia arriskutsua

Zingira bare-bare zegoen arratsalde hartan. Aspaldian ez zen entzuten, ordea, txantxangorrien txorrotxio-hotsik zingira inguratzen zuen basoan. Baso iluna zen orduz geroztik. Bertara, ordea, txantxangorri ugari gerturatzen ziren baso bitxi hark hala erakarrita. Gau batean, txantxangorri bidaiari batek basoko pago zaharraren itzalpeko adar lodi baten gainean ezarri zituen bere hankatxoak: emearen bila zebilen.

Emerik inon agertzen ez eta bat-batean luma bat ikusi uste zuela iruditu zitzaion. Lumaren atzetik abiatu zen, haizeak firin-faran hara eta hona hegan zeraman bitartean. Moko txikiarekin txantxangorriak azkenean luma harrapatu eta pentsakor gelditu zen: luma hau hemen badago, hegatziren bat hemen ibili den seinale, pentsatu zuen berekiko.

Ilunabarrean zer egin pentsatzen aritu ondoren, lehen eguzki printzekin hegan abiatu zen zingira ondoko basotik urruti, luma mokoan zintzilik zuela. Zingira zeharkatu zuen eta arratsalde osoa hegan eman eta gero, amildegi baten ertzean pausatu zen. Kobazulo baten atean hain justu. Kobazuloa beldurgarria zen, iluna eta hotza, han ez zegoen arima bizirik, baizik eta herio usaina zerion. Txantxangorri bidaiaria kobazuloan barneratu zen eta orduan ikusi ahal izan zuen bertatik bertara dragoiaren buztana. Dragoiaren buztanaren gainetik igaro zen inork ez aditzeko moduan, ez baitzuen bere lozorrotik iratzarri nahi. Eta zorionez kobazuloan gehiago barneratu ahal izan zen, dragoia iratzarri gabe.

Orduan, bat-batean, argia. Baina ez eguzkiarena, baizik eta sugarren argia iruditu zitzaion txantxangorriari: gizakia kobazulo barnean bizi zen eta hara non, hegazti bat zeukan sutan erretzen, bere bazka izango zen hegaztia. Txantxangorriak ezin malkoei eutsi eta kantu triste bat atera zitzaion mokotik, luma ere askatu zuelarik. Gizakiak aditu zuen eta orduan, txantxangorriaren atzetik abiatu zen hura ere harrapatu nahian. Txantxangorri bidaiariak orduan, dragoia bertan zela oroitu zuen eta are kantu desatseginago bat abesten hasi zen, geroz eta ozenago, ahal zuen eta ozenen, birikak ateratzeko moduan kantatuz.

Dragoia iratzarri eta segituan jabetu zen gertatzen ari zenaz. Gizakia mokadu bakar batez irentsi, ondo murtzikatu eta berriz ere bere lozorrora itzuli zen. Txantxangorriak kobako sarreran izugarritzko beldurra oraindik hegoetan, beste txantxangorri bat ikusi zuen. Nahiko arraro jantzita: papar gorriduna beharrean, kolore arreko txantxangorria iruditu zitzaion. Eta zeharo maitemindu zen. Txantxangorri arreak aiene horiek entzunda, zelaia bukatzen zen amildegian zegoen kobazulora hurbildu zen, bere zereginak alde batera utzita. Geroztik, bi txantxangorriak oso pozik bizi izan ziren.

Eider



Jatordu duinak

Turkiaren eta Greziako Lesbos uhartearen arteko distantzia 8 kilometrokoa da. Egeo itsasoak bereizten ditu bi herrialdeak eta bi kontinenteak, Asia alde baten eta Europa bestean. Jakub eta Elmar anaiek itsasoz ibilbide hori egin zuten irandar, siriar, afganiar, palestinar... hainbatek bezalaxe.

Gauetz, ilargia talo baten antzera zegoenean, ahaztuta dudan turkiar hondartza batetik ontziratu ziren txalupatxo ziztrin batean. Enbatarik ez, eta greziar guardakostaren itsasontzirik sumatu gabe. Moria izeneko herri ondoko hondartzara iristean zeramatzaten txaleko gorriak erantsi ondoren, lurrera bota zituzten, eta besarkatu zuten elkar bi anaiek.

Jakub eta Elmar orain Lesbos uharteko Mitilinen Zaporeak elkarteak duen sukaldean egunero 3000 jatordu prestatzen dituzte Cara Tape errefuxiatu zelaian bizi-edo diren irandar, siriar, afganiar eta palestinentzat.

Iñaki Jauregialtzo "Jaltzo"



Barkatu, baina...

Tren geltokira sartzea lortu zuen azkenean Iñik. Jendetza zegoen Bartzelonako Katalunia plazako 3. lineako sarrera hartan. Egunero ordu berean hartzen zuen metroa etxera itzultzeko, baina inoiz ez zuen topatu egun hartan bezain jendetsu. Ingurura so egin eta eskailerak jaisteari ekin zion urduri. Poltsikotik mugikorra atera zuen, begirada inorekin gurutzatu behar ez izateko, eta pantailan iltzatu zituen begiak, egunero lez, lurrazalera berriro ateratzen zen arte. Ilarak aurrera egiten zuen eta tornu automatikoaren parean zegoela eskua poltsikoan sartu eta diru-zorhoa eta barruan zuen 10 bidaietarako bonua aurkitu ez.

–Kaka! –atera zitzaion.

Poltsiko guztiak begiratu bazituen ere, inon ez zuen aurkitu diru-zorhoa. Bilaketa horretan, atzean zuen jatorri hegoamerikarreko gizon gazteari erreparatu zion. Ilaran zegoela, bereziki gertu sentitu zuen gizonezkoa, baina ez zion jaramonik egin. Une hartan ordea, argi zuen gazteak, bere espazio intimoa inbaditu zuen horietako batean, galtzetako atzeko poltsikoan zeraman diru-zorhoa lapurtu ziola. Errespetuz jokatu nahi zuen harengana zuzentzean, baina tinko eutsita bere biktima-rolari. Eta noski, berea zena berreskuratu beharra zuen. Halaxe esango ziola pentsatu zuen: “Barkatu baina uste dut nire diru-zorhoa duzula, emadazu!” Bere barnerako behin esan ostean, bazihoan. Buelta erdia eman eta parez pare geratu ziren. Mugimendu birakari azkar horren eraginez, besoan bilduta zeraman txamarrak jo zuen gerrian, eta orduantxe ohartu zen txaketako poltsikoan zuela gordeta aurkitzen ez zuena.

Lotsatuta, blokeatuta, parekoaren sorpresa aurpegiari erantzun bat emateko presioarekin, “Barkatu, baina arrazista naiz” esaldiak egin zion ihes ahotik, bestearen harridurarako. Ez zuen ulertzen zergatik iritsi zen hori ozen esatera. Minutu bat lehenago izan zituen lapurreta susmoen zantzu arrazistez ohartuta, hain sentitzen zen gaizki, “barkamen” moduko hori besterik ez zitzaiola atera eta sortu berri zuen egoera surrealistari inondik ere ezin ziola heldu, ziztu bizian zeharkatu zituen tornuak eta jendartean desagertu zen.

Xanti



Janela bat

Fatima eta Abdel mahaia jasotzen ari dira haurrekin batera, udako etxeuko sukalde berrituan izandako bazkari goxo baten ondoren. Ontzi-garbigailuan sartzen dute ontziteria, betidanik desio izan duten horretan, aspaldi aspertu baitziren bazkaldu ondoren mahukak bildu eta eskuak zikintzeaz platerak garbitzean. “Gogoratzen duzu zenbat eztabaidatu dugun bazkalosteetan platerak garbitzearen kontuagatik?”. Ez. Hobeto ez. Ez dute eztabaidarik ekartzen gogora. Platerak elkarrekin biltzen dituzte eta sukaldeko harraska parean elkartzen dira biak, bata bestearen ondoan. Abdelek ur txorrota txiki bat pasatzen dio ontziteriari eta ostean, Fatimak, metodikoki sartzen ditu platerak, edalontziak eta mahai tresnak ontzi-garbigailuan. Beti pentsatu izan dute, behin hasita, dena eskuz garbitzea dutela, baina ontzi garbigailuan sartzeak nolabaiteko klasea ematen diela sentitzen dute, eta aspaldi adostu zuten hala egingo zutela.

Harraska parean leihate handi bat dute eta bertatik Gipuzkoako kostaldeko hondartzarik politena begizatzen dute, marea jaisten denean flyschek ebakitzen duten itsaso eta guzti. Udara da eta eguzkiak goitik jotzen duenean itsasoak turkesa kolorea hartzen... Ez. Ez daude Euskal kostaldean. Eta ez dago ez itsasorik, ez flyschik, ez ur turkesarik. Barnealdeko landetxe batean daude eta ez da haien etxea, egun batzuk pasatzeko alokatu dutena baizik. Sukaldeko leihatetik itsasoa ikusi ordez, Aiako Harriak dituzte parez pare. Harmonian dabilta hegan zero urdinean arrano beltzak eta hiruzpalau parapente. Eta ez da udara. Udaberriko egun eguzkitsu batek gorritzen ditu harkaitzak eta egun euritsuen ondorioz agertzen den ur jauziak zeharkatzen du begien parean duten egundoko... Ez. Egia esateko, ez daude landetxe batean. Eta ez dute granitozko hiru tontorreko egundoko haitz haren parean. Hiri batean daude. Gasteizko alde zaharreko muinoko 4. pisu batean. Sukaldeko leihotik hiria dute beren oinetan eta arratsalde euritsua iragartzen duen zero gorria gainean. Ez, ez dute zerurik ikusten beren janelatik. Horma zuri arrakalatu bat besterik ez dute begizatzen. Erreforma beharra duen Gasteizko alde zaharreko etxe zahar horietako bat daukate berenetik hiru metro eskasera, eguzki printzei eta zeruko urdintasunari sarbidea bera ere ukatzen diena uztailaren hasieratik ekainaren bukaerara. Eta zaharkitutako etxe hartan, noski, ez dago ontzi-garbigailurik. Eskuz garbitzen dituzte ontziak. Bueno, Fatimak garbitzen ditu ontziak eskuz, Abdelek atzetik besarkatzen duen bitartean, besoak emaztearen gerrian bilduz. Ez, Abdelek ez du besarkatzen. Egon ere, Abdel ez dago etxean. Badira bi urte inguru Fatimak banatzeko erabakia hartu zuela, urte batzuetan zehar jasandako eraso eta jazarpenen ondorioz.



Platerak garbitzean, hala ere, jarraitzen du ontziteriari ur txorota bat pasatzen, ez daitezen espartzura itsatsi umeek jan gabe utzitako arroz aleak. Ondoren xaboia eman eta eskuineko askan uzten ditu aparrez betetako platerak, jarraian denak batera urberritzeko, lehortzen utzi aurre... Ez. Ez du bi askako harraskarik. Bakarrarekin konformatu behar izan du, nahiz eta beti amestu duen, ontzi-garbigailuarekin egin bezala, bi zuloko harraskarekin. Eta ez da bazkalostea, gaueko bederatzi eta erdiak dira egongelara joaten direnean eta lurrean marrazten hasten direnean laurak. A ez. Hirurak, aita ez dela. Afaldu aurretik egin ohi dituzte haurrek eskolatik bidalitako etxerako lanak, eta horrela hurrengo eguneko motxila prest uzten dute, eskolarako behar dituzten gauza guztiak ondo antolatuta. Hamaika eta zazpi urte dituzte. Marrazketa bukatuta, hortzak, aurpegia eta musua garbitu eta lotarako prestatzen dira. Bakoitza bere gelara joaten da amaren gabon musua itxarotera ametsen munduan murgildu aurretik. Ez. Biek gela berean egiten dute lo. Bai. Egurrezko litera batean. Aitak egin zien. Ez. Etxean zegoen heldu zirenerako. Ez. Lagun batek eman zien. Ez. Zaborretan topatu zuten eta etxera igo zuten. Amaren gabon musua jaso ondoren hartzen dute lo umeek.

Hurrengo goizean, eskolara joateko esnatzen dira eta tostadak gosaltzen dituzte. Amak umei mugikorra libreki uzten dien une bakanetakoa da gosaria. Bestela gehiegi tardatzen dute jaten eta eskolara berandu abiatzen dira. Baina, gaur azkar dabilta. Gosaldu, hortzak, aurpegia eta musua garbitu eta gelara joaten dira arropak janztera. Armairua ireki eta aurreko gauean amak bereizi zien arropa jantzten dute di-da batean. Baterak jaisten dituzte hirurek kalerako eskailerak. Ama lanera, eta haurrak eskolara. Ez. Barkatu. Amak ez dauka lanik. Eta ez dute mugikorrarekin gosaltzen. Azkar dabilta bai, baina ez eskolara joateko duten presagatik. Eta aurreko gauean eskolarako motxila prest utzi orde, armairu guztia hustu eta haien jabetza urriak, maleta, poltsa eta kutxetan sartzen aritu ziren. Amak, gaur jantzi beharreko arropa utzi zien soilik armairuan eta hori jantzita, maletak, poltsak eta kutxak jaisten hasten dira laurak. Ez, laurak ez. Hirurak. A ez, beste lau kide ere goian daude laguntzen. Ez gehiago dira. Atarian berrogeita hamar kide inguru bildu dira. Urduritasuna nabari da haien artean, haserre eta elkartasun nahasketa bat. Polizia inguratzen hasten da pixkanaka. Liskarrak hasten dira, mehatxuak, jipoiak, atxilotu...Ez, barkatu, ez dago jipoirik, ez atxiloturik. Trajedun gizon bat hurbildu da karpeta bat eskuan duela eta polizia buruari ezetz egiten dio buruaz. Badoaz. Baina itzuliko dira. Gu ere itzuliko garen bezala. Sukaldeko leihotik itsaso, mendi, zeru gorri edo pareta arrakalatuekin amesten jarraituko dugulako.

